

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Lanbide-orientazioko eta lan-munduratzeko ekintzetarako diru-laguntzen deialdia zabaldu da

*Laguntzak bideratuta daude, enplegu-maila hobetzeko, autoenplegua sustatzeko eta lan-merkatuaren azterketak egiteko*

Lunes, 12 de marzo de 2012

Nafarroako Gobernuaren zerbitzuen katalogoak [lanbide-orientazioko eta lan-munduratzeko ekintzetarako diru-laguntzen deialdia](#) argitaratu du. Deialdi hori, Nafarroako irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat da, jarduera horretan gutxienez 3 urteko esperientzia dutenak eta garatzeko baliabide propioak dituztenak. Helburu horretarako, Nafarroako Gobernuak 384.00 euroko gastua bideratzen du.

[Deialdia arautzen duen araudia](#) iragan martxoaren 9ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratu zen, eta eskaerak egiteko epea martxoaren 10etik apirilaren 10a bitarte zabalik dago.

Deialdi honekin bat datozen diruz lagundutako jarduerak honako hauen tutoretza, tailer eta aholkularitza dagozkie: 1) informazio, orientazio, motibazio eta aholkularitzako ekintzak barnean hartzen dituen enplegu-maila hobetzea ; 2) autoenplegua sustatzea, eta 3) lan-merkatua aztertzea.

Enplegu-maila hobetzeko eta autoenplegua sustatzeko ekintzak honako pertsona hauentzat dira: langabeak, batez ere gazteak eta iraupen luzeko langabezia-egoeran dauden 45 urte baino gehiagoko pertsonak, eraikuntza-arlotik eta krisian dauden beste sektore batzuetatik datozenak, eta kualifikazio txikikoak, ezintasuna dutenak edo lan-bazterketako arriskuan daudenak, bai eta Lanbide Heziketa ikasleak, eta DBH nahiz Batxilergoko azken ikasturtean daude ikasleak ere.